

Lautada Mendialdea

AURKIBIDEA

GELAZ GELAKO BERTSOAK

- 3. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 5.A
- 4. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 5.B
- 5. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 6.A
- 6. orrialdea.....Lope de Larrea ikastola - Agurain – 6.B
- 7. orrialdea.....Lautada ikastola– Agurain - 5.
- 8. orrialdea.....Lautada ikastola– Agurain - 6.
- 9. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 5. A
- 10. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 5. B
- 11. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 6. A
- 12. orrialdea.....Dulantzi Eskola – Dulantzi - 6. B
- 13.orrialdea.....Araia Eskola – Asparrena – 5. maila
- 14. orrialdea.....Araia Eskola – Asparrena – 6. maila
- 15. orrialdea.....Ibernalo ikastola–Kanpezu–5. maila
- 16. orrialdea.....Ibernalo ikastola – Kanpezu – 6. maila
- 17. orrialdea..... Maeztu eskola – Maeztu– 6. maila

KONKTAKTUAK

- 18. orrialdea..... Kontaktuak



Lope de Larrea ikastola - Agurain
5. A

ERPURUTXO

1.

Erpurutxo mutiko
txiki txikia zen
7 anai arreba
etxe hartan ziren
eta etxe horretan
ezer ere ez zuten
7 umeak basora
eramán zituzten

2.

Basora iristean
pentsatzen hasi zen
basoaren barruan
ai galduta zeuden
bidea egin zuten
harriak botatzen
harriei jarraituta
etxeratu ziren

3.

Berri basorantza
bota zituztenez
lotan geratu ziren
beraiek bai nekez
ogia bota zuten
bidea eginez
txoriek jan zituzten
denak zoritxarrez

4.

Etxe batera hoan
ta timbrean rin-rin
emakumea ikusi
erraldoiarekin
erraldoia ikusi
eta ihes egin
denak jan nahi zituen
tomatearekin

5.

Afariaren bila
joaten zen gauero
eta menu goxo hau
ez zuen espero
erraldoia zegoen
tripa bero-bero
bere zazpi alabak
irentsi ta gero

6.

Korrika egin zuen
bai pozaren pozez
anai arrebak hartuz
besarkada batez
bota magikoekin
iritsi zen errez
horrela egin zuen
Erpurutxok ihes



Lope de Larrea ikastola - Agurain
5. B

BERTSO ASMAKIZUNAK

Gizona dugu eta
maite du mendia
pertsona ona da eta
hori da egia
ondoan dauka beti
bai animalia
baserritarra da hau
eta tripa handia

Gauza honek balio du
ondo gordetzeko
horren oparia da
hobe bizitzeko
aurkitzen duzunean
salto egiteko
irekitzerakoan
aluzinatzeke

horrekin itzaltzen da
bai nire garuna
nahi dut beti nirekin
egotea laguna
guk beti izango dugu
gara erruduna
argirik ez badago
sentitzen duguna

Lagunekin jolasten
bagoaz kalera
ostikada bat eman
leiho apurtzera
esferiko forma du
nolako aukera
lagunekin batera
goazen jolastera

Pixkat potoloa da
berari begira
oso gaiztoa da ta
ona ere tira
bertsotara igotzen da
eskenatokira
bizarduna da eta
Gasteizen bizi da

lagunak joaten dira
beti elkartzeko
ondo pasatzekotan
gurekin hobeto
ondo pasatu nahi dut
baina hobe ederto
argiak ikusteko
pozik egoteko

Gauza honen zaleak
bai asko gara gu
horri buruz badaude
milaka liburu
zuri ba gustatuko
zaizu bai seguru
guk ba ingelesean
asko entzuten dugu

Sentitzen duzunean
daukazu dardara
hori marraztea da
noski zail samarra
horixe da benetan
gainditu beharra
hori da benetan bai
sentimendu txarra



Lope de Larrea ikastola - Agurain
6. A

AGUR LOPE DE LARREA

10 urtetan izan ditugu
Momentu pozgarri asko
Gogorra izan da batzuetan
Jausi dira hainbat malko
Gurekin oso ondo urtetan
Portatu zaretelako
Bihotzean edukiko dugu
Ikastola betirako

Oihane bai beti izango da
Bertsolari hoberena
Irati eta Jon irakatsi
Diguzue ia dena
Arantxa eta Kioskok beti
Eman digute onena
Irakasle maiteak bagoaz
Guk dugu poza eta pena

Oso urduri bagaude eta
Ditugu hainbat galdera
Ikastolako neska-mutilak
Ondo jarraitu aurrera
Institutuan egongo gara
Araiakoekin batera
Agur institutura bagoaz
Lan pilo bat egitera

Eskerrik asko laguntzeagatik
Zarete jende itzela
Ospatzean ekarriko dugu
Izugarrizko pastela
Pasteletako soberakinak
Askok jaten dituzuela ...
Bukatzeke esan nahi genuke
Hoberenak zaretela



Lope de Larrea ikastola - Agurain
6. B

AGUR LOPE DE LARREA

Ai laster bagoaz gu guztiok
Ikastolatik kanpora
Oroitzapen asko datozkigu
Oraintxe gure gogora
Oso azkar pasatzen da dena
Gaudenean gu gustora
Nahiz eta pena eman guztioi
bagoaz institutura

Urte hauetan pasa ditugu
Jai, festa eta kontrola
Negar pixka bat egingo dugu
Baino ez dio axola
Hemen bizitakoa ez dugu
Guk ahaztuko inola
eskerrik asko guztiagatik
eta agur ikastola

Egun asko pasatu ditugu
Hobeto esanda urteak
Zuek ireki dizkiguzue
ikastolako atea
Irakasleei eman beharko
Dizkiegu musu beteak
Agur bat eta ikusi arte
Gure irakasle maiteak

Urte oso politak guztiak
Orain daukagu desira
Beti gogoan izango dugu
Zuen begien distira
Oso langileak izan gara
ia ez dugu egin pira
Hamar urte hauetatik denak
Oso onak izan dira



Lautada ikastola - Agurain
5. maila

BERTSO ASMAKIZUNAK

1.

Zahar eta gazteak
Joan ahal zarete
Ikusiko dituzue
Animaliak aske
Oso polita da ta
Anima zaitezte
Espektakulo handiak
Egiten dituzte

2.

Berandu iristean
Bera da erruduna
Batzuen etsaia da
Besteen laguna
Eguna bukatzean
Dena da iluna
Eguna antolatzen
Laguntzen diguna

3.

Bere jabeak ditu
Marina bat etsai
Lan asko egiten dute
Eta ez dute jai
Jabe gaiztoa dute
Baina haiek alai
Horiak dira eta
Moreak ere bai

4.

Etxean ta kalean
Badaude begira
Poltsikoan sartu ta
Eraman mendira
Egurrezkoa da ta
Estutxean distira
Ia leku guztietan
Erosi ahal dira



Lautada ikastola - Agurain
6. maila

BAKEAREN EGUNA

Triste bizi naiz eta

- | | | |
|---|--|---|
| <p>1.
 Uso zuria dago
 Hortik hegalaria
 Zerutik begiratzan
 Bera adi-adi
 Eta bidea ixteko
 Gaur bele beltzari
 Lagundu behar diogu
 Uso zuriari</p> | <p>3.
 Bakea etorriko
 al da gure herrira?
 Gerrak nahi dituen
 Joateko urrutira
 Denak jartzen bagara
 Elkarri begira
 Gerrak eta gosea
 Bukatuko dira</p> | <p>5.
 Tanketatik atera
 Ahal zen mila lore
 Familiarik gabe
 Umeak ba daude
 Berdin da iparralde
 Edo hegoalde
 Hau konpontzeko denak
 Bakearen alde</p> |
| <p>2.
 Nelson Mandela hil da
 Badago zeruan
 Eta tristura handia
 Daukagu orduan
 Bakezale onena
 Gure inguruan
 Nelson Mandela gehio
 Behar dugu munduan</p> | <p>4.
 Bizikidetza beti
 Egon behar da etxean
 Bakea nahi badugu
 Hasi behar lanean
 Guztion ardura da
 Mundua bakean
 Eskolan, parkean eta
 Ere gure artean</p> | |



Dulantzi Eskola - Dulantzi
5. A

DORTOKA ETA ERBIA

- | | | |
|--|--|---|
| <p>1.
Bazen behin basoan
Animali asko
Dortoka eta erbia
Aipatu beharko
Dortoka itsusia
Zen erbiarentzako
Burla egiten zion
Motela zelako.</p> | <p>3.
Gure erbiak zuen
Hankan nahiko indar
Eta dortokak berriz
Gasolina behar
Lasterketa hasi zen
Eta denok negar
Dortoka oso poliki
Erbia oso azkar</p> | <p>5.
Gure erbia zegoen
Siesta bat egiten
Dortoka ez zen gelditu
Irabazi zuen
Erbia esnatu ta
Korrika joan zen
Azkenean erbia
Geratu zen azken</p> |
| <p>2.
Erbia dortokari
Hasi zen barrezka
Dortokak erbiari
Jarri zion kezka
Bueno egingo dugu
Gu biok apuesta
Ea nork irabazten
Duen lasterketa.</p> | <p>4.
Zeren motela zaren
Motela ta lelo
Ez zara helmugara
Helduko Potolo
Erbiak esan zuen
A ze eskandalo
Erbiak egin zuen
Zuhaitz azpian lo</p> | <p>6.
Erbiak esan zuen
Nik galdu dut "jolin"
Guztiak pozik zeuden
Eta erbiak min
Lasterketa galdata
Ondo zuen jakin
Dortokari burlarik
Ezin zaio egin</p> |



Dulantzi Eskola - Dulantzi
5. B

TXOKOLATEZKO ETXEA

1.
Hansel eta Gretelek
Gose asko zuten
Basora joan ziren
Egur bila zuzen.
Ordu batzuk pasata
Biak galdu ziren,
Ta biak kezkatuta
Gurasoak bilatzen


2.
Txokolatezko etxe
Bat ikusi zuten
Txokolate pilo bat
Ikusten da hemen
Hasi ziren teilatu
Pixkatxo bat hartzen
Gosea zuten eta
Hasi ziren jaten

3.
Sorgin bat agertu zen
Etxeko atean
Zer egiten duzue
Gaixoak kalean
Txokolatea jaten
Gaixoak benetan
Sorginak engainatzen
Ditu bere etxean

4.
Sorgina bihurtu zen
Maltzurra orduan
Sorgin maltzurragorik
Ez zegon munduan
Gretel gaixoa jarri
Neskame moduan
Mutila sartu zuen
Kaiola barruan

5.
Egun horrek ez zeukan
Klima oso alai
Hezurra erakusten
Hansel kaiolan bai
Gretel saiatu zen bai
Lasai egon anai
Azkenean sorginak
Argal ere jan nahi

6.
Nola egingo dugu
Guk etxetik ihes
Neskak eskatu zion
Askatu mesedez.
Labea piztu eta
Gero oso errez
Labean sartzen dute
Ostikada batez



Dulantzi Eskola - Dulantzi 6. A

SAGUTXO KAXKARINA

Ba omen dago
sagu polit bat
Rosa izena zuena
Eta joan zen Carrefourera
Gastatzera diru dena

Ikusi zuen xingola ederra
Arrosa samar bai zena
Galdetu zuen bere prezioa
Eta zen garestiena

Gero joan zen bere etxera
Xingola arrosa jantzita
Eta guztiek esaten zuten
Zelako sagu polita

Joan da gure sagua
Ispilu aurrera
Ta gero atera zen
Poz pozik kalera
Xingola dotorea
Bai erakustera
Nobio bat nahi zuen
Guapoa gainera

Denak txistu egiten
Kalean barrena
Xingolarekin zuen
Polita melena
Ea aurkitzen zuen ba
Txano bat zuena
Animali denetan
Eleganteena

Kaixo katu maitea
Kaixo nire lagun
Jakin nahi dut gauean
Zer egiten duzun

Zurekin ezkontzea
Hori dut espero
Miauka egiten dut
Gauero- gauero

Eta saguak orduan lortu
Zuen bere helburua
Maitemindu zen eta orduan
Ikusi zuen zerua
Eta geroago eman zion
Bere bihotzeko muxua
Ta azkenean ezkondu ziren
Katua eta sagua

Baina katuak nabaritzen du
Bere tripa ere gosez
Baina saguak
nahi zuen arren
Ezin zuen egin ihes
Beraz saguek ta neskatilek
Kontuan hartu mesedez
Edozein bitxo hartu ezazue
Baina katua inoiz e



Dulantzi Eskola - Dulantzi 6. B

SAGUTXO KAXKARINA BENETAKO ISTORIOA

Ba omen zen behin sagu
txiki bat
Oso polita zen bera
Bakar bakarrik bizi zen eta
Oso gustura gainera

Zorte onarekin irabazi zuen
Loteriaren saria
Eta izan zen berarentzako
Benetan sari handia

Herriko animaliak
Betiko erara
Enteratu ziren ta
Nolako algara
Denbora pasa eta
Agertu zen hara
Bere etxe aurrean
Sekulako ilara

Kaixo sagu maitea
Polita zara zu
Nirekin ezkontzeko
Aukera daukazu

Oso zikina zara
Zu zara txerria
Nirekin bizitzeko
Izan behar garbia

Kaixo sagu maitea
Polita zara zu
Nirekin ezkontzeko
Aukera daukazu

Oso iletsua zara
Zu zara lehoia
Buru handia duzu
Dirudi baloia

Kaixo sagu maitea
Polita zara zu
Nirekin ezkontzeko
Aukera daukazu

Oso maltzurra zara
Ai, ai, ai otsoa
Niretzako herria
Zuretzat basoa

Kaixo sagu maitea
Polita zara zu
Nirekin ezkontzeko
Aukera daukazu

Arriskutsua zara
Zu zara katua
Nirekin bizitzeko
Hobeto sagua

“Kokoteraino nago atean
Dauden animaliekin!”
Eta dirua gastatu zuen
Konstruktora on batekin
Gure sagutxok,
ondo zekien
Une horretan zer egin
Zoologikoa ireki zuen
Bertako animaliekin



Araia Herri Eskola - Asparrena
5. maila

Jendeak pasatzen du
Oso oso txarto
Jendea otoitz egiten
Dute sendatzeko
Gaizki pasatzen dute
Bota hainbat malko
Oso erraz galtzen zara
Handia delako

Barrutik orri asko
Kanpotik ahaztuta
Mutil asko badaude
Neskei muxuka
Badaude ere asko
Umeak galduta
Kondaira asko daude
Bertan kokatuta

Oso maltzurra izan zen
Gurekin ikara
Beti etortzen da bai
Kristongo festara
Oso gaiztoa da ta
Egiten du algara
Eta bere izena
Oso erraza da

Ilea nahi baduzu
Hor daukazu hasteko
Batzuetan itsusi
Bestetan guapo
Kolore askoz ditu
Hori bai ederto
Buruan ipintzen da
Barre egiteko

Familia eta ni
Goaz oporretara
Txalupa beharko da
Ere behar bada
Marinelak askotan
Doaz bai bertara
Lur zati bat urez bai
Inguratua da

Batzuetan gaiztoa da
Ahoa irekita
Eta bai eukitzen du
Ehizatzeko irrika
Animali azkarra
Benetan korrika
Panpin baten antza du
Da oso polita

Hiri baten antza du
Ta gu beti hemen gaude
Errepidea amaitzen da
Baina hori ez da grabe
Denetarik badago
Gainera oso suabe
Herririk politena
Zalantzarik gabe

Handik pasatzen da bai
Txalupa erregina
Batzuetan olatuak
Dator bai sardina
Marrazoak bai daude
Ta kristongo arraina
Piztina bat bezala
Polita ta urdina

Pozgarria mingarria
Daukat nik zalantza
Gorputzan barrenean
Egiten du dantza
Zuk hori sentitzeko
Dauka esperantza
Batzutan goxoa da
Bestetan garrantza



Araia Herri Eskola - Asparrena
6. maila

Oporrak, oporrak
Gu ba bagara bizkorrak
Oporrak, oporrak
Agur egun gogorrak

Klaseak bukatzea
Ez zaigu axola
Institutan nahi dugu
Edan koka-kola
Patioan nahi duguna
Da sartzea gola
Hemendik goaz eta
Entzun denek hola
Agur ikusi arte
Araia Eskola

Oporretatik bueltan
Orain irakurri
Baina guk ez dugu nahi
Gu gara bihurri
Aniturri ezagutu
Gu ikasle berri
Oso lasai gaude gu
Gero oso larri
Agur Araia eskola
Kaixo Aniturri

Italiara joan gara
Gu bai lagunekin
Besubiora igota
Gero egin puenting
Restaurante batean
Pizza on batekin
Futbol zelai batean
Txilena bat egin
Oporretara goaz
Etorri gurekin

Beti andereñoa
Dago bai haserre
Baina gu ikasleak
Beti egiten barre
Orain esan beharko
Astoari arre
Ondoren Aniturri
Hasi larrez larre
Klaseak bukatzean
Liburuak erre

Egongo gara gu bai
Beti piztinetan
Ondo pasako dugu
Hemengo festetan
Gu tirapitxoietan
Eta koltxonetan
hemen ondo gaude bai
Herriko dantzetan
Ez gara aspertuko
gu opor hauetan



Ibernaloko ikastola - Kanpezu
5. maila

BERTSO ASMAKIZUNAK

Beti bera barrutik
Oso bai iluna
Likidoa darama
Eta da biguna
Erritmoa dauka eta
Lurrean ezaguna
Umekin jolasten
Dabilen laguna

Gure leku maite ta
Tradizionala
Oso dibertigarri
Ta ere mundiala
Gu hortxe gaudenean
Zeinen espeziala
Ai ze leku polita
Eta naturala

Lagunekin jolasten
Aldiz gaude mila
Berarekin jolasten
Dute batzuk pila
Ostikoa emanda
Utzita papila
Ipurdiaren antzera
Oso borobila

Hortxe bertan prestatu
Daiteke sardina
urak kolore asko
berdea eta urdina
umek jolasteko
freskatzeko grina
leku naturala da
eta atsegina

Liburuak sartzean
Ze pozik ze ondo
Ikastolan hor dago
Ez badugu txango
Oporrak daudenean
Saloura eramango?
eta azkenean zer den
ez dizut esango



Ibernalo ikastola - Kanpezu
6. maila

BERTSO POSTALAK

Kaixo Gloria eta Janire
Hemen Egipton gaude gu
Zer moduz zaudete zuek hortik
Oso ondo bai seguru
Hemen ez oso urrun ere
Familiakoak ditugu
Hemen pasatzen gabilta oso ondo
Gonbidatzen zaituztegu

Iepale lagun ikusezinak
Atzean dugu algara
Gure jet miressgarriarekin
Bagoaz Nueva York-era
Barrezka eta ondo pasatzen
Gu erregeen erara
Zuek etxean egon zaitetzte
Gu hemen gelditzen gara

Egun on Ibon eta Gisella
Hemen dugu abentura
Basamortu eder batean gaude
Baina falta zaigu ura
Gutako batek ezagutzen du
Pixka bat hemengo ohitura
Agur ez gara berriro ere
Bueltatuko Kanpezura

Kaixo zer moduz zaudete zuek
Gu hemen Parisen gabon
Zuek non zaudeten esan guri
Eta pixka bat itxaron
Leku politagorik ez dago
Ez hemen eta ez inon
Oso ondo pasatzen gabilta
Zuek hor konpon marianton

Kaixo lagunok Hawayen gaude
Ta askaltzen txokolate
Kriston gosea daukagulako
Ez digu egingo kalte
Bat moreno jarri zaigu eta
Bestea ez horrenbeste
Gu hemen oso ondo gaude ta
Agur eta ikusi arte



Maetzuko Eskola - Maeztu
4. eta 5. maila

HERRI KIROLAK

AITA SEMEAK TABERNAN DAUDE
AMA ALABAK JOKOAN (BIS)

Herri kiroletan badauzkagu
Trontzalari eta aizkolari
Bata zerrarekin ta bestea
Emaiozu egurrari

Soka handi bat eta bi taldek
Sortzen dute soka-tira
Munduko kirolik hoberena da
Eta egiten da tira

Batzuek ondo egiten dute
Bai gurdia altxatzea
Eta nik nahiz ta argala izan
Altxatuko dut kotxea

Indarra euki beharko duzu
Eta fardoa altxatu
Benga ba indartsu tiratu
Eta bizkarra nekatu

Euskara astea denez gero
Egingo dut idi-proba
Eta egingo dut nik proba hau
Benetan oso gustura

Gaur euskararen astea dugu
Ta daude herri kirolak
Gehien gustatzen zaidan kirola
Da eramatea txingak

Euskal Herrian tokatu zaigu
Guri altxatzea harria
Egunerokotasunean ez da
Izango horren Larria

eskutan hartu eta eman gogor
Goazen egitera sega
Hori bai dela dibertigarria
Denok belarra moztera

Hau da bai nire euskal kirola
Eta deitzen da arrauna
Da munduko kirolik onena
Euskal kiroletan jauna

Inguruko bertso-eskolak
2013-2014 ikasturtea



LAUTADAKO BERTSO-ESKOLA
(Agurain, Asparrena eta Zalduondo)
Arramel kalea z/g
01200 AGURAIN

Arduraduna: Oihane Perea
Tel: 945010505 (Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: araba@bertsozale.com
www.blogak.com/laube

MENDIALDEKO BERTSO-ESKOLA
Kultur Etxea
01140 KANPEZU
Arduraduna: Julen Zulaika
Tel. 945 010505
(Arabako Bertsozale Elkarteak)
e-posta: araba@bertsozale.com



AMAIA ZENTROA
Pérez Galdós z/g
01002 GASTEIZ
Tel: 945010505 fax: 945288275
Mug: 688695875 - 688616531
e-posta: araba@bertsozale.com
www.bertsozale.com/araba